


TANTAKA DATOR ALDAKETA



egitura

2006ko abenduaren 3a
134. zenbakia
ekonomia@berria.info

Nekazaritza ekologikoa ari da bihurtzen lehen sektorearen krisialditik ihes egiteko irtenbidea; Euskal Herri osoan mila ekoizle daude, eta dagoeneko 15 milioi euro balio dituen negozioa da Hegoaldean.

// *Ivan Santamaria*
Eneko Bidegain

betiko nekazaritza da. Erlojuari atzera eragin eta ahalik eta uztairik handienak biltzea helburu duen ereduari bizkarra ematea da. Lehen sektoreko amaierarik gabeko krisiari aurre egiteko dagoeneko alternatiba bideragarria eta errentagarria dela diote nekazaritza ekologikoaren sustatzaileek.

Europa osoan eta Euskal Herrian ere indartzen ari den ekoiz-

pen praktika da. Urte luzez ia banan-banako harremanaren bidez hedatu da produkzio ekologikoaren sarea, herriko plazako ohiko salmenta zuzenaren bidez. Haatik, ekologikora sartu den ekoizle kopurua handitu ahala, erosleak eta gizarte osoa horren balioaz ohartarazteko ekimenak ugarituko dira.

Horren harira, EAEn Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Legea urtea amaitu baino lehen indarrean sartzea espero da. Horrekin batera, Ekonekazaritza federazioak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak komunikazio kanpainak antolatu

dituzte datozen hilabeteetarako.

Europako Batasuneko datuek argi erakusten dute gero eta pisu handiagoa hartu duela. EB-15ean 700.000 hektarea zeuden 1993an, eta hamar urte geroago 5,1 milioi hektarea ziren. Iaz Batasunean sartu ziren beste hamar herrialdeak gehituta, guztira 5,7 milioi hektarea dira. Italiak hedadura horretatik bosten bat du, eta 700.000 hektarea daude Alemania, Espainia eta Erresuma Batuan.

Nekazaritzarako erabiltzen den lur guztiaren %3,6 baino ez da, oraindik, baina herrialde batzuetan batez bestekoa aise gainditzen dute. Halaxe gertatzen da Aus-

trian (%9,7), Italian (%8,1) eta Suedian (%7,2), adibidez. 1999. urtetik herrialde guztietan igo da soro ekologikoen hedadura.

Ekoizleak kontuan hartuz gero, 29.000 izatetik 140.000 izatera pasatu ziren 1993tik 2003ra doan hamarkadan. Produkzioaren ia biheren (%61) belarra eta bazka ekologikoa izan ziren, goldatutako uztak (zerealak, batez ere) %25, eta barazkiak %8. 11.000 milioi euroko balioa duen merkaturak da kontinente zaharrean.

Hego Euskal Herrian duela hamar urte hasi ziren laborari ekologikoak antolatzen. Urte horretan sortu ziren kontseilu arau-jartzailak hala EAEn nola Nafarroan. Hain zuzen ere, herrialde horretan izan du garapen adierazgarriena praktika horrek. 27.000 hektarea eta 600 ekoizle inguru ditu. Dagoeneko soro erabilgarri guztietatik

%8 ekologikoak dira. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, oraingoz, apalagoa da, neurri batean lur sailak txikiagoak direlako. Hala ere, ekoizpena %15 igo zen iaz, eta nekazari eta abeltzain ekologikoei lau milioi euroren diru sarrerak izan zituzten. 2004ko datuen arabera, Nafarroan 10,34 milioi euroko balioa zuen merkatura ateratako ekoizpenak. Baserrira itzuli nahi izan duten gazte asko erakarri dituen lan egiteko era da, gainera.

Merkatu mugatua

Produktu ekologikoak eskuratze-ko biderik ohikoena herri eta hirietan egiten diren merkatuak dira. Administrazioen aburuz, bada garaia horri buelta emateko, eta kanpainak antolatu dira elikagai horiek ezagutarazteko. Erosleari, lehenik eta behin, bilatu behar duen etiketa zein den jakinarazi nahi zaio. Zigilu horrek elikagai horiei ez zaiela inolako tratamendu kimikorik egin adierazten dio, eta produktu horrek Europako Batasunetik nekazaritza ekologikoari ezartzen zaizkion arau zorrotzak betetzen dituela egiaztatzen du.

Hegoaldeko erakunde publikoen irudiko, merkaturatzeko bideari garrantzia eman behar zaio orain. «Foru Erkidegoan produkzio esanguratsua dugu, baina ez dago produktu ekologikorako sensibilizazio nahikorik, merkaturatzea lantzea falta da», azaldu zuen Jose Javier Etxarte Nafarroako Nekazaritza kontseilariak joan den astean, Espainiako ministerioak prestatu duen komunikazio kanpainaren aurkezpenean.

(HURRENGO ORRIALDEAN JARRAITZEN DU)